


Sagardoterapia, terapia zaharra



Edari guztien artean herrikoiena, prezio egoki edo merkekoa eta batez ere jende artean, taldean eta giro alaietan hartzen ohi dena. Denetan, jai giro eta alaitasuna gehien errazten duena. Edari soziala erabat.

Sagardoa modan dago, hori nabarmena da eta urteetan zehar sendo dirauena gainera. Gazte, zahar, emakume, gizonezko, kanpotar zein bertakoei atsegin zaiona.

Lehen mailako garrantzia duen gastronomia, turismo eta kultur produktu bihurtu dena. Ez dago produktu parekorik, gastronomiaren inguruan, hainbeste jende mugitzen duenik. Bezero fidelak ditu eta urte batetik bestera, kale egin gabe errepikatzen dutenak.

Nork ez du ezezagunekin hitz egin, dantza edo kantu egin sagardoa bitarteko? Laneko tratuak itxi, ospakizunak eta etsaiak adiskidetzen dituen bitartekaria.

Azken egunetan zenbait egunkari, irrati eta hedabideetan agertutako berri batek oihartzun zabala izan du eta sagardoaren inguruko ezaugarri terapeutikoak goraipatu. Zehazki, berriak hauxe esaten zuen: "Asturiasko Hotel Toranzon sagardoterapia lehen aldiz eta eskusiboki eskaintzen dute, larru azalaren ximur eta osasunarentzako oso ona dela ziurtatuz. Horretarako **sagardoarekin egindako bainuak, masajeak eta garbiketak gomendatzen dituzte.**"

Berriak esaten duenari zehatz-meatz egokitzuz gero, nobedade baten aurrean gaudela pentsa genezake, baina kazetariak oinarrikoegi edo sinpleegi den azalpena egiten dute, berritasun hori zertan datzan agertu gabe.

Asturiarrek eta euskaldunok ederki dakigu eta gure arbasoek ere oso ongi zekiten sagardoak dituen ezaugarri terapeutikoei buruz.

Sagardoak, lanpostuak sortu eta jende askori ogibi-

dea baliatzeaz aparte, gure herriak ospea izatea eta ezagun izatea ahalbidetu du eta aisialdirako irtenbide aparta erakutsi. Astigarragaren nortasun agiria da.

Zenbat eta zenbat jai ospatzen dira bere inguruan edo bera partaide delarik!!! Zer izango litzateke Santa Ana edo San Isidro eguna sagardorik gabe?

Zenbat parre, algara, kantu, bertso eta dantza! Horrek ez al du larru azaleko ximurrik kentzen?

San Sebastian bezperetatik eta maiatza bitarte, horren ezagunak diren aromaterapia, hidroterapia, talasoterapia, txokolateterapia eta ardoterapiari, gure herriko sagardotegietan sagardoterapia, txuletaterapia eta bakailoterapia gehitzen zaie. Beste herrialdeetan Compostelara, Lourdes-era etab. erromesak biltzen diren bezala, sagardotegietako aldareetako txotx-etara erromeria hasten da, egunerokotasunak eta lanak sortutako estresa sendatzeko mirariaren bila. Estressaren aurkako erremedio homeopatikoa eta naturala, inondik ere.

Asturiasen emandako pausoak, garrantzi handia du, eta beste herrietan Orion talasoterapiarekin, Eltziegion ardoterapiarekin, etab. egin duten bezala Astigarragak ez luke aukera hau galdu behar, horrelako ideia aurrerakoia bereganatzeko. Aurrerapauso izugarria litzateke, erreferentzia modura sendotzeko, eredu horietako bat bertan antolatu eta finkatzea.

Zeozter izango du sagardoak bedeinkatzen dugunean!!!

Gaizka Irigoien Goikoetxea